

Orri kopurua / Nº de páginas: Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

Aurreikusitako epeak betetzen ari dira 2019ko amaieran esleitu ondoren Edukiontzi horietan eta urdinetan ahoak ipintzeko lanak hasiko dira

Datorren astean ontzien edukiontzietan (horiak) eta paper/kartoiaren edukiontzietan (urdinak) aho-sistema instalatzeko lanak hasiko dira egiten, horiek abenduaren amaieran esleitu ondoren eta hondakinak uztea errazten segitze aldera. Sistema horri esker, gainera, estalkiak eskuarekin ez ukitzeko herritarren eskaria ase ahal izango da, eta hori udarako eginda egotea aurreikusten da. Ahoak eraikitze fasearen ondoren, in situ egingo diren muntatze lanen iraupena bi hilabetekoa izango da, gutxi gora behera, eta Areetako eta Algortako erdi gunetan hasiko dira egiten. Egun dauden estalkiak kenduko dira eta ahoa dutenak ipiniko dira. Horregatik unerren batean edukiontziren bat estalkirik gabe egon daiteke.

112.119€-ko kostua izango duen jarduketa hori, alde batetik, 2019rako Partaidetza-Aurrekontuen barruan kokatzen da; aurrekontu horietan, herritarrek lehenetsitako aukera edukiontziak aldatzeari buruzkoa izan zen, horiek irisgarriago egiteko; eta, bestetik, udal gobernua EH-Bildurekin 2018ko azaroan sinatu zuen Hiri Hondakinei (HH) buruzko akordioan, 2022an gaikako bilketan eta bereizketan birziklapenaren %50era iristeko erronkan aurrera egitea ahalbidetuko duten ekintzak inplementatzeko, Europako zuzentarauetara jarraituz. Ildo horretan, adierazi behar da 2019an hondakinen birziklatze-tasa % 34,50koa izan zela, eta aurreko urtean % 31,31koa; Getxo aipatutako erronka horretatik gero eta gertuago jarritz.

13 puntuko igoera edukiontzi berriak ezarri ondoren

Edukiontzi berriak Getxon ezartzearen ondorioz, ehuneko 13 puntu igo da HH-Hiri Hondakinen gaikako bilketa udalerrian. Horrek esan nahi du edukiontzi zaharrak gaur egungoekin ordeztu zirenetik eta 2019ko amaierara arte, urtero 3.000 tona hondakin gehiago biltzen direla gaika, urtean 10.000 tonara iritsi arte (horiei gehitu beharko zaizkio "errefusa" zatiari dagozkion 19.000 tonak, edukiontzi grisari dagozkionak, alegia). Hedapenaren ondorioz, gaikako 951 edukiontzi gehiago jarri ziren, eta, gaur egun, 1.613 edukiontzi daude guztira; "errefusa" frakzioko 574 edukiontzi grisak gehituta 2.187 edukiontzi daude guztira.

2019an, biztanle eta urte bakoitzeko honako kilo hauek sortu ziren Getxon: 44,35 kg paper, 21,54 kg ontzi, 25,03 kg beira eta 249,91 kg gainerakoa. Bizkaiko iazko datuen berri izan ez arren, 2018an Getxoko zifrak lurraldeko batez bestekoaren gainetik jarri ziren, % 37 gehiago

paperean, %31 gehiago ontzietan, %4 beiran eta %10 gutxiago gainerakoen frakzioan.

KOMUNIKAZIO ARLOA • ÁREA DE COMUNICACIÓN



Udalak herritar gehienek birziklatzearekin duten inplikazioari egotzi dio igoera hori, eta eskerrak eman dizkie egindako lanagatik, eta materia organikoa biltzeko zerbitzuan (edukiontzi marroia) alta ematera animatu du, 94 464 43 80 telefono-zenbakiaren bidez edo www.getxo.info-citi.es helbidean online, funtsezko frakzioa baita 2022rako erronka hori lortzeko.

Prensa bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzeko. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.